



## Afizionatu mailako talde onenak lehian Aiztondon

**27 TALDE** ▶ III. Aiztondo Klasikoa korrituko dute bihar Euskal Herriko eta Espainiako 237 txirrindularik

**IBILBIDEA** ▶ Alkizan hasiko da proba eta, 142 kilometroren ondoren, Larraulen amaituko da ▶ 3

LEITZA ▶

**Riaño eta Elosegi, Nafarroako Bertsolari Txapelketan**

Leitzan, hilaren 11n ▶ 7

N. URBIZU



### Urkiak landatu dituzte Irurako eta Anoetako haurrek, Zuhaitz Egunean

**ANOETA** ▶ Lorezainen laguntzaz, aurretik prestatutako zuloetan 30 bat urki landatu zituzten atzo, ibaiaren ertzean ▶ 3

VILLABONA ▶

### 6 milioi eurotik gorako aurrekontua onartu du Udalak 2006. urterako

EAJ-EA koalizioaren aldeko botoekin onartu dituzte; PPko zinegotziak kontra bozkatu zuen bilkuran ▶ 4

AMEZKETA ▶

Zazpi-Iturri, Berria Txapelketan gaur ▶ 5



## GIZARTEA ▶



47 ekoizleen artean 19 hektarea landu eta 20.000 kilogramo bildu eta merkaturatu dituzte 2005ean. J. SAIZAR

## «Maila ona lortzeko», kide berrien bila dabil Babarrun elkarte

Datorren astelehenean, 11:00etan, elkarteko egoitzan burutuko duten bilerarako deia luzatu diete ekoizle guztiei

## ERREDAKZIOA

Tolosako Babarrun Elkartearen ekoizle gehiagoren bila dabil-tza, «produktio maila on bat eta merkaturatu behar adina presentzia eduki ahal izateko». Hori dela eta, ekoizleei zuzendutako deia luzatu dute, «alternatiba baten bila ibili eta Tolosako Babarrunaren moduko elkarte baten parte hartzeko prest dagoenari», eta antolatutako bileren ezberdinetara gonbita luzatu dute, bertan behar adina informazio eskainiko baitute. Tolosan, datorren astelehenean burutuko dute, 11:00etan, Tolosako Babarrun Elkartearen egoitzan.

«Gaur egun babarrunaren kalitatea zein jatorria berma-

tzen duten bakarrak Tolosako Babarrun Elkartekoak gara», adierazi dute. 2005. urtean, 47 ekoizleen artean 19 hektarea landu eta 20.000 kilogramo bildu eta merkaturatu zituzten. Haatik, beharrezkotzat jo dute ekoizle gehiago izatea elkartean, konpetentziari aurre egiteko.

## Kalitatea helburu

Gaur egun konpetentziarik gogorrena itsasoz bestaldetik etortzen da. Itxuraz antzekoa den babarruna euro baten azpitik ekartzen dute, gero hemen Tolosako izenean, bere prezioa 5 eta 10 aldiz artean igotzen delarik, bitarteko eta merkatarien poltsikoen onera-

ko. Tolosako Babarrun Elkarte-koek «kalitatea eta jatorriaren bermearen alde» lan egiten dute; hortik aurrera, «antzekoak, merkeagoak eta garestiagoak aurkitu ahal dira, bakoitzak aukera dezala».

Oraindik ere bada Tolosako Babarruna Tolosako soilik dela pentsatzen duenik. Egia da izena Tolosako Azoka eta merkataritza zor diola, baina ez dago arrazoirik Zumaian egindako babarrunak, esaterako, Tolosako izena ez emateko. Horrexegatik, dei hau ez da Tolosara mugatzen eta Gipuzkoako lurralde guztietara zabaldu nahi izan dute. Berri zehatzagoa nahi izanez gero, berriz, deitu 943 65 02 53 telefonora zenbakira.

## IRAUPEN ESKIA ▶

## Rojoren urrezko 2 domina Espainiako Txapelketan

Jarraipen eran eta klasiko eran lortu ditu;  
Amaia Mujika eta Lourdes Irazusta ere, fin

## ERREDAKZIOA

Aste honetan, Candanchun (Espainia), Iraupen eskiko Espainiako Txapelketa jokatzeko ari dira. Eta, asteartean, hemen Inauterien azken uneak gozatzeko ari zirenean, lehenengo banakako lasterketa lehiatu zen, jarraipen eran. Hau da, lasterketa bat klasiko eran —7,5 kilometro mutilek eta 5 kilometro neskek—, «ziztu bizian» eskiak aldatu eta beste hainbeste distantzia patinatzaile eran. Eta kadete mailan —16-18 urte bitartean— urrezko domina Joseba Rojo tolosarrarentzat izan

zen. Aipagarria da, halaber, lasterketa honetan bere anaia gazteagoak lortutako bosgarren postua.

Herenegun, berriz, klasiko eran, 10 kilometrotako lasterketan, berriz ere irabazlea Joseba Rojo izan zen, eta bere anaia Imanol Rojok laugarren postua lortu zuen; podioa lortu zuten bigarren eta hirugarrenetik segundo gutxira geratu zen azken hauxe.

Bestalde, nesken mailan Amaia Mujikak 6. postua lortu zuen eta Lourdes Irazustak master-beteranoen mailan dominak irabazi zituen. Fin aritu dira, beraz, tolosarrak.

## HEZKUNTZA ▶

### Lanbide Heziketa Institutuko ikastaro berria

Tolosaldea Goi Mailako Lanbide Heziketa Institutuak jakitera eman du martxoaren 6an, astelehenearekin, OLC Siemens S-7 programatzea ikastaroa hasiko dela. Beraz, bertan parte hartu nahi dutenek ikastetxean bertan edota 943 65 11 47 telefono zenbakian eman dezakete izena. Doakoa izango da ikastaroa, Hobetuz eta Europako Fondo Sozialak diruz lagundu baitute.

## MENDIA ▶

### Alpinismo ikastaroa antolatu du Oargik

Oargi Mendi elkarteak alpinismo ikastaroa antolatu du federatuentzat, datorren astebururako. Martxoaren 10etik 12ra, beraz, Hoz de Jacara (Tena bailara, Espainiako Pirinioak) txangoa egingo dute. Informazio gehiago lortzeko 637 83 03 80ra deitu.

## INAUTERIAK ▶

### Udal Musika Eskolakoak, Piñata Igandean

Tolosako Udal Musika Eskolako ikasle talde bat, konpartsa batean parte hartuz, Alde Zaharreko kaleetara aterako da bihar, Piñata Igandean. 11:30ean, 60 ikasle, hauen artean umeak, gazteak, helduak... Scott Joplinen musika joko dute. Instrumentu asko izango dira, bada, entzungai: flautak, oboeak, klarineteak, saxoak, tronpak, bonbardinoak, tronpetak eta tronboiak, esaterako.

## hilberria ▶

### D. Gaspar Legorburu Etxebeste

JAUNA

(Teresa Karrikabururen alarguna)

Ostiralean hil zen, 79 urte zituela, Elizakoak eta Aita Santuaren Bedeinkapena hartu ondoren  
—Golan bego—



Bere seme-alabak: Joxe Mari, M<sup>a</sup> Dolores eta Jose Ramon Eceiza, M<sup>a</sup> Angeles eta Miguel Lasa, eta Angel; bilobak: Izaro eta Iñigo Inciarte, Nagore eta Jon Ander Vega, Maider, eta Arkaitz; anai-arrebak, ezkon anai-arrebak, ilobak, lehengusuak eta gainerako ahaideak. Haren animaren alde oitotz bat eskatzen dizuete eta arren etor zaitezela LARUNBATEAN, arratsaldeko ZAZPIETAN, SAN JOAN BATAIATZAILEA parroki elizan, gorpuzta bertan dela egingo den hiletara. Aldez aurretik, mila esker.

Helbidea: Txartiku Baserria

oharra ▶ Gorpua Zentolen Tanatorioan egongo da larunbata arratsaldeko sei terdik arte.

Pasai Donibane, 2006ko martxoaren 4a

▶ hilberriak ▶ urteurrenak ▶ eskertzak

# Gipuzkoan 50.000 etxetara

HITZA guztietan prezio beragatik

ESKELAK

19:00ak arte hartzen dira

Telf.: 943 65 56 95

tolosaldean@tolosaldeko-hitza.nfo

III. AIZTONDO KLASIKOA ▶

# Afizionatu onenak, Espainiako Koparako puntu bila lehian

Alkizan hasiko da bihar aurtengo Aiztondo klasikoa; 142 kilometroren ondoren, Larraulen bukatuko da



2004. urtekoa izan zen azken klasikoa. Orduan garaile Carlos Castaño birrindularia izan zen. GARAZI AZKUE

## NEREA URBIZU

Bihar jokatu da Aiztondo III. Klasikoa. Alkizan izango du hasiera, eta Larraulen amaituko da, 142 kilometroren buruan. Afizionatu mailako txirrindulari onenak hantxe ariko dira, Villabona eta Alkiza aldean batez ere. 10:00etatik aurrera ibiliko dira, eguerdira arte.

«Espainiako talderik onenak ekartzera behartuta» daude antolatzaileak. Horrela egiten da, Patxi Otegi antolatzaileetako batek zioen moduan. Saillakapen berezi bat dago egina, eta zerrendako lehenengoek hartu behar dute parte, «aurrerago eginen diren probekin batera, Espainiako Kopa erabaki ahal izateko».

Euskal Herriko eta Espainiako hainbat taldek hartuko dute parte aurtengo klasikoan. 27 talde ariko dira orotara, eta euskaldunak hauek izango dira: Alfus Tedes, Azysa, Rural Kutxa, Baque, Bruesa, Debabarrena, Seguros Bilbao, Bidelan, Lizarte eta Telco-Aldabea. Horien artean eskualdeko hainbat txirrindulari daude.

Banakako lasterketa izaten da Tolosaldean korritzen den probarik garrantzitsuenak. Espainiako Kopan ari direnek

## IBILBIDEA

**142 kilometro izanen dira orotara afizionatuek egingo dituztenak: Alkizan hasi eta Larraulen bukatu**

puntuak lor ditzaten balio duen proba izango da hauke.

## Ibilbidearen nondik norakoa

Herrian trafikoa moztuko dute bihar, baina denbora laburrez, azaldu dutenez.

Alkizan emanen diote hasiera aurtengo Aiztondo Klasikoari, eta handik Villabona aldera egingen dute txirrindulariek. Gero, Iruratik, Anoetatik eta Tolosatik pasatu eta Ordiziaraino joanen dira, ondoren berriz ere Alkizara iristeko. Alkizatik Villabona-Asteasu-Zizurkil-Aduna-Villabona ibilbidea lau aldiz errepikatuko dute. Eta, amaitzeko, Villabonatik Larraul herrira igoko dira.

Beraz, aurtengo ibilbidea hiru kilometroko igoeran amaituko dute txirrindulariek, orotara 142 kilometro egiteko. Aurtun banaka samar iristea espero dute antolatzaileek, las-

terketa aldapsua izatearekin. «Ez dago sprint-a egiteko aukera handirik», Otegi zioen moduan.

Lehenengo urtean ez zen posible izan zirkuitoa edo ibilbidea egitea, eguraldi traketza zela eta, elurra egin baitzuen. Lau garren urtea bada ere, proba aurrera eramaten den hirugarren urtea dute honakoa.

Temporada hasiera izatearekin ez dago jakiterik zein izan daitekeen faboritua edo txirrindularien artean onena.

Biharkoan dena ongi joatea espero dute antolatzaileek; eguraldiari dagokionez, elurra egitea ez dute espero, eta 27 taldeetako 237 txirrindulari afizionatuek errepide onarekin topatzea ere espero dute.

## Federazioarekin arazoak

Aspaldi hasi ziren arazoak. Afizionatu mailan, talde gehienak elkarte batean zeuden sartuta, eta elkarteok —taldeek— uko egin zioten Espainiako Txapelketan parte hartzeari. Hala, Espainiako federazioak nolabaiteko mugak jarri zizkieten. Azkenean, arazoak nolabait konpondu egin zituzten eta proba egitea posible izango da.

ANOETA ▶ ZUHAITZ EGUNA



## Zuhaitz Eguna urkiak landatuz

**Nerea Urbizu** ▶ Zuhaitzaren Eguna zela eta, hortxe aritu ziren Iru-rako eta Anoetako 5. eta 6. mailako ikasleak urkiak landatzen. Lorezainen laguntzaz, aurretik prestatutako zuloetan 30 bat urki landatu zituzten: aurtun, ibaiaren ertzean aritu dira horretan. Hemendik urte batzuetara 20 bat metroko zuhaitz hauen itzalaren pean egun hau gogoratuko dutelakoan daude ikasleak. N. URBIZU

## GIPUZKOAKO EUSKAL KANTU TXAPELKETA 2006


(Bakarleri, bikote eta taldekako sailetan)

Hiru ekitalditan gauzatuko da:

- 1. kanporaketa: URRETXUko Labeaga aretoan, martxoaren 18an, 18:00etan.**
- 2. kanporaketa: OIARTZUNGO Elorsoro kiroldegian, martxoaren 25ean, 18:00etan.**
- 3. Gipuzkoako finala: AZKOITIKo Baztartz antzokian, apirilaren 1ean, 18:00etan.**

**IZENA EMATEKO azken eguna, martxoaren 13a**

anima zaitetz!



Martin Ugalde Kultur Parkea  
Gudarien etorbidea  
20140 - ANDOAIN  
Tel-fax: 943-593302  
posta@kantuzale.net

VILLABONA ▶ 2006KO AURREKONTUAK

# 6 milioi eurotik gorako aurrekontua onartu du Udalak 2006rako

EAJ-EA koalizioaren aldeko bederatziko boto eta PPko zinegotziaren kontrakoa jaso du aurtengo aurrekontuak



Aurrekontua onartutu zuten osoko bilkuran une bat, herenegun. I. GARCIA

IMANOL GARCIA

Villabonako Udalak aurtengo aurrekontua onartu zuen herenegun arratsaldean egindako osoko bilkuran. EAJ-EA koalizioaren aldeko bederatziko boto jaso zituen aurrekontuak eta Iñigo Manrique PPko zinegotziaren kontrakoa. Nagore Bravo (EAJ-EA), Ricardo Navajas (PSE-EE) eta Jose Manuel Izaguirre (EB) ez ziren izan bertan. Onartutako aurrekontua 6.075.045 eurokoa da.

Iñigo Manrique kontrako botoaren arrazoiak zehaztu zuen: «Ez gaude ados presoen familien desplazamenduetarako ematen diren 25.000 euroko partidarekin, eta horregatik kontra bozkatu dugu». Bakartxo Tejeria alkateak partida hori aurrekontuan egotearen arrazoiak azaldu zuen: «Aspaldiko kontua da diru laguntza horiena. Dispertsioaren politikarengatik presoen familiek

## KOPURUAK ▶

Arloa	eurotan	%
Zor publikoa	496.446,53	8,2
Udal gobernuak	120.765,16	2,0
Bulegoak	736.883,39	2,1
Zerbitzuak	1.107.832,54	18,2
Udaltzaingoa	319.131,56	5,3
Gizarte zerbitz.	670.393,18	11,0
Eusk./Hezkun.	916.430,12	15,1
Hirigintza	657.979,26	10,8
Kultura	738.743,10	2,2
Kirolak	176.489,30	2,9
Ingurumena	133.951,78	2,2
<b>Guztira</b>	<b>6.075.045,91</b>	<b>100,0</b>

egin behar dituzten gastuei aurre egiteko ematen da».

Udaleko aurrekontuaz gain beste bi aurrekontu onartu zituzten. Alde batetik, Santiago Zahar Egoitzarena, 788.725 euroko kopuruarekin. Bestalde, Villabona Lantzen S.A.rena —herrian etxebizitzaren gaia jorratzen du—, 1.700.751 euroko kopuruarekin.

## 3 milioi inbertsioetan

Iker Ariznabarreta eta Iñaki San Sebastian Ogasun zinegotzietatik (EAJ-EA) aurrekontuan «inbertsioek duten garrantzia» azpimarratu zuten. Guztira, inbertsio errealetarako 3.039.305,57 euro zuzenduko ditu Udal Gobernuak.

Inbertsioen artean garrantzitsuenak, besteak beste, ondorengoak izango dira: Urdapilleta etxea Haur Eskola bihurtzeko lanak, Kale Nagusia eraberritzeko proiektua, Musika Eskolaren solairu bat eraberritzea, Amasako frontoia berritzea, Arratzaingo futbol zelaiak aldagelak berritzea eta polikiroldegirako aparagailu berriak.

Bi zinegotzietatik Udalak ematen diren diru laguntzen kopurua ere nabarmendu zuten: «Tamaina bereko beste udalderriekin alderatuz, kopuru dezente altuagoa ematen da».

VILLABONA ▶ GAZTERIA



Herenegun arratsaldean egindako bileraren une bat. I. GARCIA

## Gazte Olinpiadei hasiera emango diete gaur

I. GARCIA

Onddo Gazte Asanbladak gazteen artean komunikazioa bultzatzeko eta larunbaterako alternatiba gisa, Gazte Olinpiadak antolatuko ditu, orain 10 urte inguru egin ziren ekitaldiak berpiztuz.

Larunbatero antolatuko dituzte hainbat ekitaldi —hilaren 11n izan ezik, eskualdean Gazte Topaketak egingo baitira—, eta gaur bertan egingo

dute lehenengo saioa, bertso probarekin. Gaztetxean egingo dute, eta 15:30ean hasiko dira. Oraindik izena eman ez duten koadrilek aukera dute proba hasi baino lehen horretarako.

Hurrengo larunbatetan beste hainbat proba izango dira: marrazketa, apustua, Gaztetxe borobila, AHTren bila, goitibehera... Eta ekainean azken proba eta amaiera festa egingo dituzte.

AMASA ▶ KULTURA

## Bertso afaria Iturrigoxon

ERREDAKZIOA

Amasako Kultur Taldeak bertso afaria antolatu du Iturrigoxo jatetxean. Hilaren 11n izango da, 20:30ean hasita, eta bertan parte hartuko dute eskualdeko bi bertsolariak:

Amaia Agirrek eta Aitor Mendiluzek.

Interesa duenak txartelak erosteko azken eguna datoren asteazkena du, hilaren 8a, Amasako Iturrigoxo jatetxean bertan. Bertso afariaren prezioa 25 eurokoa da.

VILLABONA ▶ GERTAERAK



## Lau ibilgailu erreta agertu dira Oriamendiko aparkalekuan

Erredakzioa ▶ Oriamendi auzoko aparkalekuan zeuden lau ibilgailuk su hartu zuten atzo goizaldean. Bat guztiz kiskali zen eta beste hiruak dezente hondatu zituen suak. Sua nahita piztu ote zuten edo berez sortu zen ikertzen ari da Ertzaintza. I. GARCIA

**Egurrezko leihoak, kontraleihoak, atek eta eskailerak neurria**

**JANTZI ZURE ETXEA EGURREZ**

Tel.: 943 67 36 11 • Faxa: 943 67 36 55  
"Cuatro vientos" Industrialdea, 1  
Txarama auzoa • 20491 Leaburu

**ARAMBURU**

Salgai (Tolosa).  
Pisua Larramendi kalean. 112m2.  
Salgai (Berrobi).  
Pisua, heratza eta txabola. 168.000€  
Salgai (Tolosa). Lokal komertzialak Nagusia kalean eta Belate ibilokian.  
Salgai (Ibarra). 60m2 lokala.  
Salgai (Tolosa). Garajeak Leidor, Pedro de Tolosa eta Plaza Zaharreen.  
Alokatzeko (Alegia). Erabateko pisua.  
Alokatzeko (Arribas).  
2 logelako pisua, Tolosatik 17km-tara.  
Alokatzeko (Tolosa).  
Lokal girotua, Foru kalean.  
Alokatzeko (Tolosa). Bi lokal komertzial ondoan, Laskorain kalean.

**943 65 17 13 / 677 46 09 16**

AMEZKETA ▶ PILOTA

# Zazpi-Iturri Berria Pilota Txapelketan

Gaur ariko dira bikote amezketarrak Elorrion, Berriotxoako pilotarien aurka: irabazlea 3. kanporaketara sailkatuko da

NEREA URBIZU

Berria binakako Pilota Txapelketa aurrera doa. Eta eskualdeko bi eskolek hartuko dute parte azken txanpa honetan: Aurrera-Saiazek eta Zazpi-Iturrik. Hain zuzen ere, Zazpi-Iturri ariko da asteburuan Elorrion, Berriotxoako taldearen aurka. Berriotxoako sendo dabil, iaz bezala; izan ere, final zortzirenetara iritsi zen, eta horregatik ez du orain arte jokatu behar izan.

16:30ean hasiko dira hiru bikoteen partidak. Zazpi-Iturriko eskolatik Elorrion joanen diren pilotariak hauexek dira: kadeteen artean, Iraola eta Arzelus; Ropon eta Legarreta gazteen mailan; eta Baez-Garmendia nagusiekin lehiatuko dira.

Aurkariak kadeteetan Elezkan eta Olalde izanen dira, Aztir eta Landaburu Ropon eta Legarretarekin lehiatuko dira, eta nagusien artean Beitia-Larrinaga izanen dira aurkariak.

Bestalde, 2. kanporaketara iritsi diren beste 2 taldeak Goizuetako Umore Ona eta Erreka dira. Hauek igandean jokatuko dute norgehiagoka.

24 pilota eskolek ekin zioten txapelketari, eta dagoeneko 12 daude, lehenengo 2 kanporaketak amaitu baitira. Asteburuan honetan bi eskola kanporatuak izanen dira; bikoteen 3 partida horien artean tanto gehien egiten dituen taldeak pasatuko dira 3. kanporaketara.

Atzera begira jarriz

Lehenengo urtean sendo ibili zen Huarte eskola nafarra, baina aurten ez da sano ibili, eta lehenengo kanporaketan txapelketatik at geratu zen. Lehenengo Berria Txapelketa (2004. urtean) Zazpi-Iturrik irabazi zuen, eskualdeko Aurrera-Saiazen kontra. Oso final interesgarria ikusi ahal izan zen, Euskal Herriko pilota eskolarik onenak eskualdekoak izan baitziren. Aurten ere eman daiteke kasua, gauzak berdin joanez gero.

Berria Txapelketaz gain

Sendo dabil Zazpi-Iturri pilota eskola. Bihar Rodriguez eta Arzelus kadeteek Arabako federazioko txapelketan parte hartuko dute; finala jokatuko dute, gainera. Arerio Lizartzako Mendinueta izango dute. Gas-teizen izango da, 10:30ean.

PILOTA ▶

## Aurrera-Saiaz Udaberrikoan eta Euskadikoan

Gaur Beotibarren Aurrera-Saiazek partidak jokatuko ditu. Udaberriko Txapelketa 10:00etan hasiko da. Denak ere kadete mailakoak dira, eta arerio Ilumpe, Hernani eta Oiarpe izanen dituzte. 19:00etan, aldiz, Euskadiko Txapelketan dabilen Belloso eta Oteiza ariko dira Urretxuko Goierriko eskolakoen kontra. Gogorra izanen da partida hau, finalurrea baita, eta haien aurkako lehen-go partidari galduta egin zuten, 22-18ko emaitzarekin.

ALEGIA ▶

## Jose Luis Albizuren erliebe lanak

Jose Luis Albizuren koadroak ikusgai daude Jubilatuen tabernan, hilaren 21a arte. Asteartetik igandera bitarte egongo dira bertan. Paisaia ezagunak ikusteko aukera izanen da erakusketa horretan: Donostiako portua edota Leaburuko txoko bat, esaterako. Salgai daude denak.

UNAI LEGARRETA ▶ PILOTARIA

## «Momentuz ez nago urduri, baina oso onak omen dira biharkoak»

Unai Legarreta Euskadiko Txapelketan eta Berria Txapelketan ari da parte hartzen, Zazpi-Iturri eskolarekin. 17 urteko gazte urrietar honen inpresioak eta sentsazioak jaso ditu HITZAK.

**Berria Txapelketan zabilta. Zure lehen urtea da honetan?** Ez, hiruetan aritu naiz. Momentuz, gainera, lasai nabil, ez nago urduri. Baina oso onak omen dira biharko arerioak. Lehenengo urtean ere Elorrioko-

ak oso ondo aritu ziren txapelketa honetan.

**Nola ikusten duzu aurtengo Berria Txapelketa?**

Pilotako Txapelketarik garrantzitsuenetakoa ari da bihurtzen, eta maila handia ikusten dut. Hernaniko partidak oso onak ari dira izaten.

**Horrez gain, Euskadiko Kluben artekoan ari zara.**

Bai. Aste honetakoa Ibai Roponekin batera 22-19 galdu dugunez, finala jokatzerara joango



N. URBIZU

gara, 12 tanto behar baitenituen aurrera jarraitzeko. Finala hurrengo asteburuan izango da.

**Non dago zuen joko onaren**

**gako: indarra, entrenamenduak...?**

Berria-n gabiltzan 3 bikoteak nahiko erregularrak gara, eta hori mantentzean dago gakoa.

AMEZKETA ▶

## Emakumearen Eguna ospatzeko merienda

Hilaren 8an Goiko Lokalean 17:30ak aldera emakumeak elkartuko dira, urtero legez, Emakume Nazioarteko Eguna ospatzeko. Bertan merienda egongo dute denek batera. Irekia da deialdia.

**hitza** *lagunen*  
**txokoa**

▶ HITZAREN HARPIDEDUN TXARTELAREKIN %5\*-eko BEHERAPENA izango duzu zure EROSKETETAN

\*Promozio hau ez da beste beherapenei gehituko eta eskura ordaindutako erosketetan bakarrik aplikatuko da

▶ Txartela HITZAREN harpidedun ordaintzaileek bakarrik eskuratuko dute; deitu 943 30 43 46 telefono zenbakira

## Egin zaitez harpidedun!

DENDA HAUEK HITZA-REN LAGUNTAILEAK DIRA

**Avalon**  
o s a g a i a k  
korreo, 11 • Tolosa • Tel.: 943 67 51 02

**honekin**  
TOLOSA  
Tel.: 943 67 22 44

**kanikak**  
San Frantzisko, 21 • Tolosa  
Tel.: 945 65 27 46

Gudari kalea, 5 • TOLOSA  
Tel.: 943 65 04 62

**ILUMINAZIOA**

**SHANTI KIROLAK**  
Rondilla, 11  
TOLOSA  
Tel.: 943 67 40 74

**MUGAR**  
Nafarroa etorb. 16 • TOLOSA  
Tel.: 943 65 56 85

**LIZARRIBAR**  
ONINETAOKAK  
Arostegieta kalean  
TOLOSA

## BELAUNTZA ▶ GIZARTEA

Sahararren  
egoera  
ezagutzeko

I. Terradillos ▶ Datorren asteartean, hilaren 7an, Belauntzako Kultur Etxean, 19:30ean hasita, Saharari buruzko *Hindu: un sueño de libertad* dokumentala ikusteko aukera izango da. Antolatzaileek azaldu dutenez, dokumental honetako protagonistak Saharako emakumeak dira; izan ere, «herri honen egoera ezagutzeaz gain, emakumeek gizartea hobetzeko egiten dituzten ahaleginak islatu nahi ditugu». Bestalde, proiektioaren ostean, Tolosaldea Sahararekin elkarteko kideekin tertulia izango da, besteak beste, Saharako errepublikaren 30. urtemugaz, uholdeen ondorengo egoeraz eta udan saharar haurrak etxean hartzeko aukeraz. i. t.



## ARRAUNA ▶

TAK emaitza onak  
ari da lortzen  
Gipuzkoako ligaxkan

Orioko bigarren estropadan 2. eta 3. geratu ziren jubenil-senior neskak; jubenil mutilen A batela 3. sailkatu zen



Tolosaldeko klubeko batel bat, Orian entrenatzen. HITZA

## iragarki laburrak ▶

## SALGAI

**Furgoneta.** Volkswagen Multivan-a salgai. Interesatuek deitu 670 06 55 33 telefono zenbakira.

**Furgoneta.** Citroen Berlingo. 2003koa. 30.000 kilometro.

Oso egoera onean. Deitu 635 73 63 75 zenbakira.

**Etxebizitza.** Andoingo Olagain Auzoan pisua salgai. 82 m<sup>2</sup>koa. 3 logela, sukaldea, egongela, bainugela eta trasteleku txikia. Eguzkitsua eta ikuspegi ederrenak.

Deitu 943 59 01 58 telefono zenbakira.

**Besteak.** Setter inglesa 2 hileko zakurkumeak salgai, eta Rangge Rover TDI salgai. Deitu 646 40 95 84 telefono zenbakira.

## LANA

**Tabernaria.** Anoetan, neska euskalduna behar da tabernan 4 orduz lan egiteko. Eskarmentua duena. Deitu 635 74 52 91 telefono zenbakira.

## ERREDAKZIOA

Pasa den asteburuan Tolosaldeko Arraun Klubeko 9 batelek hartu zuten parte Orion jokatu zen Gipuzkoako batel ligaxkako bigarren estropadan, eta «oso emaitza onak» lortu zituzten.

Batetik, jubenil-senior nesketan, maila nagusian, TAKekoak bigarren eta hirugarren postuan sailkatu ziren; Orion soilik izan zuten aurretik. Hauen atzetik sartu ziren Geta-

ria, Hondarribia eta Sanpedrotarra. Irati Ozaita (patroia), Itziar Saizar, Amaia Doyague, Izarne Garmendia eta Laida Etxedona izan ziren bigarren geratu zirenak; eta Izaro Zubiria (patroia), Ainhoa Lopetegui, Maialen Azaldegi, Ioana Alijostes eta Maitane Garmendiaren batela sailkatu zen hirugarren postuan.

Bestetik, jubenil mutilen A batelak ere (Jon Gago, Haritz Izagirre, Iñigo Jauregi, Eneko Martine eta Jonander Agirre) maila ona erakutsi zuen, eta bigarren postuan amaitu zuen Koxtape pasaitarren atzetik; Tolosaldeko batelaren atzetik, bederatzigeko aldearekin sailkatu ziren Sanpedrotarra, Aita Mari, Getaria, Orío, Illunbe eta Ur Joko. Bederatzi minutu pasatxoko estropada batean alde hori nabarmena dela esan daiteke. Bestalde, estropada berean, TAKeko beste batela 10. sailkatu zen.

Beraz, sailkapen orokorrari begira aukerak sortu dira, baina emaitza onak lortzeak garrantzia badu ere, arduradunen esanetan, «helburu garrantzitsua pixkanaka klub bezala neurria hartzen joatea da». Aipatzekoa da, halaber, Gipuzkoako batel ligaxkan batel gehien dituen kluba dela TAK; Orion izan zen bigarren jardunaldian, esaterako, Tolosaldeko klubeko 9 batel aritu ziren lehian.

Ligaxkako hurrengo jardunaldiak hilaren 11n eta 12an izango dira, Orion eta Getarian, hurrenez hurren.

## TXARAMA ▶

Kultur eta Osasun  
zentroaren  
irekiera bihar

Bihar inauguratuko dute Txaramako Kultur eta Osasun gunea. Hori dela eta 12:30ean dantzariak izango dira, eta ondoren *lunch*-a.

## BERASTEGI ▶

Arnedora irteera  
antolatu du  
Gaztainondok

Gaztainondo jubilatuek elkarrekin hilaren 14an Arnedora (Espainia) irteera antolatu du, 27 euroren truke. Oraindik lekua badagoela eta ahalik eta azkarren ibiltzeko eskatu dute antolatzaileek.

## ZUZENKETA ▶

Atzoko Hirzan, eskualdean Bai Euskarari Ziurtagiria duten eragileen zerrendan, Leaburuko Mahala esnekiak falta zen, hain zuzen ere, Guk zerbitzua euskaraz ziurtagiria baitu.

## TELEFONOAK ▶

## Larrialdiak. ((112))

## Osasuna.

▶ **Alegialdea.** Osasun z.: 653212

▶ **Anoeta-Alkiza-Hernialde.**

Medikua: 65 23 39

▶ **Asteasu.** Medikua: 692423

▶ **Baliarrain.** Medikua: 889003

▶ **Berastegi-Elduain.** Medikua: 683361

▶ **Bidegoian.** Medikua: 681134

▶ **Ibarraldea.** Osasun ebea:

672411

▶ **Ikaztegieta.** Medikua: 653329

▶ **Iruia.** Osasun zentroa: 690720

▶ **Leitza.** Osasun z.: 948 510800

▶ **Orendain.** Medikua: 655595

## ▶ Tolosa.

▶ Anbulatorioa, larriald: 461111

▶ San Esteban: 006800

▶ Gernikako arbola: 006900

▶ Asunzion klinika 675799 -

67 53 90 (larrialdiak)

▶ DYA: 672536

▶ Gurutze Gorria: 674888

▶ Villabona. Anbulat.: 006970

▶ Zizurkil. Aiztondo zerb: 693930

## Garrarioak.

▶ Renfe: 902 24 02 02

▶ Donostiako autobusa: 361740

▶ Tolosaldea bus: 650621

▶ Leitzarar autob.: 948 221015

▶ Taxia: 670420

▶ Taxia (Leitza): 608 873016

## Besterik.

▶ Ertzaintza: 538820

▶ Tolosa-Udaltzaingoa: 675858

▶ Tolargi: 650016

▶ Iurramendi egotza: 670325

▶ Tolosa gasa: 675320


**TOLOSALDEKO  
HITZA.INFO**

**Eztabaida.** Aurtengo Inauteriak igaro dira. Zer gustatu zaizu gehien? Zer bota duzu faltan? Zer gehituko zenuke? Sartu eskualdeko egunkariaren webgunean eta eman zure iritzia proposatzen dizugun gaiaren inguruan!

LEITZA ▶ NAFARROAKO BERTSOLARI TXAPELKETA

# Riaño eta Eloseg Nafarroako Bertsolari Txapelketan dira

Bihar da lehen finalerdia Etxarri Aranatzan; leitzarrek hemen bertan egitekoa den saioan parte hartuko dute

JAIONE ASTIBIA

Aurten ere bi leitzarrek parte hartuko dute Nafarroako Bertsolari Txapelketan: Diego Riaño eta Migel Mari Elosegik, datorren igandean, bihar zortzi. kantatuko dute.

Bertsos Liga bukatu dute eta dagoneko ezagun dira txapelketarako sailkatu direnen izenak. Riaño txartela eskuratu zuen berriz ere, eta Eloseg, berriz, iaiztik sailkatuta zegoen. Horrela, bi leitzarrek hilaren 11n, larunbata, Leitzan bertan egingen dute berragerpena, txapelketako bigarren finalerdian; zineman, 18:30etik aurrera. Saioan kantu-lagun izanen dituzte Julen Zelaieta, Etxabe, Bittor Elizagoien eta Oier La-kuntza.

Leitzan finalerreko bat

Hiru finalerreko dira. Leitzan bigarrena den bezala, hasi, aste-buru honetan berean hasiko da, Etxarri Aranatzan: bihar, 17:00etan, Kultur Etxean. Bertan izanen dira kantuan Estitxu Arozena, Juan Mari Lopez, Erika Lagoma, Joseba Beltza, Julio Soto eta Oskar Estanga. Eta azken finalerreko saioa, berriz, Atarrabiako Kultur Etxean egingen dute hilaren 18an, 18:30ean hasita, honako bertsolari hauen parte-hartzearekin: Xabier Silveira, Jon Barberena, Iñigo Ibarra, Iñigo Olaetxea, Iñaki Aleman eta Jon Elizetxe.

Saio hauetan lau lan dituzte eginbeharrak. Hirutan, binaka: zortziko handian gaia emanda

hiruna bertso; beste hiru ofizioa, zortziko ttikian; eta gaia emanda beste hiruna bertso, baina hamarrek ttikian oraingoan. Eta, azken lana kartzelakoa izanen dute, noski, banaka egin beharrekoa: bi punturi erantzutea, alde batetik, eta nahi den doinu eta neurrian gai bati bi bertsoa botatzea, bestetik.

Lan hauek guztiak Alaitz Rekondoren esanera eginda, epaimahaiaren ariora lehen lekuan gelditzen den bertsolaria zuzenean igaroko da finale-ra. Gainerako bostak eskuratuak zuten, Txapelketa Nagusiaren tankeran. Baina 1979tik aurrera, urtero jokatu da Nafarroan Txapelketa, Nafarroa Garaiko eta Nafarroa Behereko bertsolariak elkartuz.

Finala apirilaren 1ean egingen dute, Elizondon, Lur dantzalekuan. Aurten estreinakoz, larunbatarekin egingen dute.



Iazko txapelketan, otsailean, Goizuetako finalerdian. HITZA

## Duela 70 urte hasitakoa

1936an egin zuten lehendabiziko aldiz Nafarroako Bertsolari Txapelketa, Elizondon. Eta 70 urteren burura, ospakizun aproposa inondik ere, bere sorterrira itzuliko da, 28. edizioarekin.

Hasierako haiek gerra garaia ere izaki-eta ahal zen eran, edo uzten zuten eran egingen zituzten. Gero, lau urte-tik behin egiteko ohitura hartu zuten, Txapelketa Nagusiaren tankeran. Baina 1979tik aurrera, urtero jokatu da Nafarroan Txapelketa, Nafarroa Garaiko eta Nafarroa Behereko bertsolariak elkartuz.

«Jaioterrira itzuli da, baina etorkizunari begira». Izan ere, urtetik urtera jende gehiago mugitzen duen ekimena da txapelketa hau ere: 60 bertsolari mugiarazi ditu aurten. Txapelketa baino lehen egingen den Bertso Ligan, lehen aldiz parte hartu duten bost bertsolari berri, horren isla zuzena eta gainera txapelketarako sailkatu dena bat: Iñaki Aleman.

Bertsosozale elkarteak herrialdeko 39 ikastetxetan eta bestelako 22 bertso eskoletan egingen duen lanaren uzta da hori guztia. ◀

GAZTERIA ▶

## Gazte Olinpiadetarako prestakizunetan ari dira ere Leitzak, Areso eta Goizuetan

Parte hartu nahi dutenek bihar arte dute izena emateko azken aukera

J. ASTIBIA

Euskal Herri osoan bezala, Leitzaldean ere egingen dituzten Gazte Olinpiadei azken ukituak ematen ari dira Leitzako, Areso eta Goizuetako gazteak. Hiru herrietakoak elkartu eta hilaren 11n, arratsaldean, egingen dituzte, Leitzako plazan.

Apirilaren 14tik 17ra Etxarri Aranatzan egitekoa den Gazte Topagunearen atariko ekimen modura eskualdeko egingen di-

tuzte Gazte Olinpiadak. Jakitera eman dutenez, «probak fisikoak izanen dira, baina indarrak behar ez denak». Aurtengo topaguneen leloa *Auzolana eta elkarlana* omen direnez, «talde guztiaren ahalegina behar duen probak» izanen dituzte aurrera atera beharrak, «baina sorpresa izanen dira parte-hartzaile guztientzat», diote-nez.

8 lagunetik gorako taldeak eginda eman behar da izena;

hori bai, taldeek parekideak izan behar dute, eta olinpiadetako talde bakoitzak, gainera, bere jarraitzaile taldea ere eratu behar du. Hau ere puntuagarri izanen omen da. Edozein moduz, banakakoek ere izena eman dezakete.

Leitzaldean, Gaztañagan eta Torrean daude izena emateko zerrendak, eta bihar da azken eguna. Taldeko, 40 euroko laguntza-kuota ordaindu behar da, olinpiada egunean.

LEITZA ▶ FUTBOLA

## Aurrerak lidergoa lortuta atsedena du oraingoan

Agoitzi 6 gol sartu dizkio aurreko saioan; gazteek Mutiloakoak hartuko dituzte etxean

J. ASTIBIA

Lasai egoteko beta izanen dute asteburu honetan Aurrerako jokalariek zein prestakizunarekin ere, atsedena egiteko egokitzaren zaila eta. Lasai eta gustura ere bai, Ligako aurreneko postua berreskuratu baitaude.

Aurreko jardunaldian Agoitzi 6 eta Oko aldearekin irabaziaz Aurrerak. Erraz, sekulako gol festa erakutsi zuten Irujo-

ren mutilek Arkixkilen, eta hiru puntu oso garrantzitsu lortu horrela, hain zuzen ere, 42 punturekin sailkapeneko lehen postua berreskuratzeko balio zuen. Gazte Berrriak-ek Baztani irabazita 3 gutxiagora jarraitzen dio.

Gazteek, berriz, Union Mutilvera Mutiloako taldea hartuko dute Arkixkilen, gaur arratsaldean bertan. Leitzakoak 12. doaz sailkapenean.

iragarki laburrak ▶

## LANPOSTUAK

**Suhiltzaileak.** Ertzaintza, polizia. 2006ean lanpostu berriak.

Informazioa: 943 313782.

**Administratzaileak.**

Hurrengo sarrerak: Beasain, Bergara, Soralue, Mutriku, Zizurkil,

Mendaro, Anoeta. Hilean 1.500 euro. Doako informazioa.

943 313782.

**Garbitzaileak.** Lanpostu finkoak:

Eusko Jaurilaritza, ikastetxeak,

ospitaleak. Informazioa:

943 313782.

**Gidariak.** Udaletan eta Foru

Aldundian laster lanpostuak.

Kontratu mugagabeak.

943 313782.

**Sukaldariak eta sukaldari**

**laguntzaileak.** Postu libreak Eusko

Jaurilaritza. Asteburuetan libre.

943 313782.

**Peoiak, langileak.** Igeltseroak,

elekttrizistak, iturginak,

lorezainak, palistak, gidariak.

Lanpostu libreak udaletan.

943 313782.

**Aireportuak.** Bete behar dituzte:

harreragileak, aireko kontrolatzaileak,

suhiltzaileak eta

mantentze-lanerako langileak.

Informazioa: 943 313782.

**Harreragileak.** Telefonistak,

hurrengo deialdiak erakunde

publikoetan. 943 313782.

Harpidedunei banatua ▶ 2006ko martxoaren 4a, larunbata ▶ IV. urtea

GAURKO EGURALDIA

goizez



arratsaldez



beroena

13

hotzera

04

BIHARKO EGURALDIA

goizez



arratsaldez



ELURRA ARALARREN



Guardetxe:



gaur: bai / bihar: bai

Pagomari:



gaur: bai / bihar: bai

Gipuzkoako Foru Aldundia



Eusko Jauriaritza. Kultura Saila



HITZA-KO BEZEREN ARRETA ZENBAKIA (zalatuz argizko harpidedun egiteko...)

943 30 43 46



## Kirmen Uribe Jesusen Bihotza ikastolan

VILLABONA ▶ Euskal Idazleen Elkartearen *Euskal idazleak ikastetxeetan* egitasmoari esker, Kirmen Uriberen bisita jaso dute Jesusen Bihotza ikastolan. Olerki banarekin hasi eta amaitu zuen solasaldia idazleak, eta *Garmendia errege* bere liburuari buruz aritu zen hizketan ikasleekin. «Hizketalditxo interesgarri» horri esker, liburu berria

bukatu duela jakin ahal izan zuten. Bestalde, eta ikasturtean egindako irteerekin jarraituz, Leaburuko Mahala behategian izan ziren ikastolakoak: «Behiak eta zekorrak ikusteaz gain, yogurta, gazta, odolkia, txistorra... nola egiten duten ikusi eta dastatzeko aukera izan genuen. Gainera, yogurtak oparitu zizkiguten». HITZA

### AGURRAK ▶

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

▶ HITZAren egoitza Tolosan Araba etorbidea, 5 behea

▶ HITZAren egoitza Leitzan Udaletxeko bulegoa

**hitza**  
agurren tartea

Urtebetetzeak, urrezko ezteiak, ezkontzak, jaioberriak...

### AGENDA ▶

#### DEIALDIAK

**Tolosa.** Eresoinka abesbatza aritutako kantarietzako bazkaria antolatu dute hilaren 12an, igandea. Informazio gehiago eta izen-ematea 625 70 36 84 edo 677 43 89 49 telefono zenbakietan. 37 euro sartu behar dira Kutxako 2101 0117 12 0125329102 kontu korrantean.

**Tolosa.** Oargi Mendi Elkarteak alpinismo ikastaroa antolatu du hilaren 10etik 12ra, Hoz de Jacan (Tena bailara, Espainiako Pirinioak). Federatuentzat izango da. Informazio gehiago eta izen-ematea 637 83 03 83 telefono zenbakian.

**Txarama.** Kultur eta osasun gunearen inaugurazioa. Bihar, 12:30ean, herriko dantzarien saioa; ondoren, lunch-a.

#### ERAKUSKETAK

**Leitza.** Manuel Lasarte: *bizitza eta sorkuntza*. Gaurtik hilaren 26ra bitartean, udaletxeko batzar aretoan.

**Tolosa.** Dorleta Ortiz de Elgearen pintura erakusketa. Apirilaren 1a arte, Aranburu Jauregian.

#### ZINEMA

**Leitza.** *Oliver Twist*. Bihar, 19:30ean, zinema aretoan.

#### GUARDIAKO FARMAZIAK

#### Gaur

**Ibarra.** Ugarte, M. T. Euskal Herria, 46. 943 67 32 74.  
**Leitza.** Erbiti, O. Lizarraga, 7. 112.

#### IRRATIA

**Txolarre irrati**  
(107.5, 101.2 FM)

10:30-13:00. *Hitzak hegan* magazina: elkarriketak, *Mundurako leihoa*, kolaboratzaileak, agenda, porra, disko eskaniak...

**Goiko irrati**  
(107.0 FM)


13:00. *Kormera* magazina. Posta elektronikoa: kormera@hotmail.com

▶ HITZA ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanena eta iritzien erantzukizunik.

## laster eskuratuko duzu DOAN ostalaritza gidarik osatuena

tolosaldeko, leitzaldeko eta goierriko

OSTALARITZA  
GIDA 2006



- JATETXEAK
- SAGARDOTEGIAK
- ERRETEGIAK
- PINTXO TABERNAK

Goierriarra  
**hitza**